

B e u s k a r a r e n BERRIPAPERERA

Nobedadeak haur eta gazte-literaturan

Zorioneko izan daitezke haurtxoak eta gazteak, eta baita guraso asko ere, azkenaldian literatura-munduan gerta diren berri aipagarrienek laguntza ederra eskainiko diete eta liburu bat edo beste bat aukeratzeko orduan.

Ikerle bat, bi liburu

Haurrak eta gazteak hartu dira kontuan segidan aipatuko diren bi nobedadeetan. Nobedadeak bi, baina egilea bakarra, Xabier Etxaniz.

"Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia" izenburua darama Xabier Etxanizen bi liburuetariko batek, Pamiela etxearekin argitaratu duenak. Bertan, literatura mota honen errepasso kritikoa egiteaz gain, etorkizunerako ildoak finkatzen dira. Orain arte zer egin den, zein diren Euskal Herrian egin diren haurrentzako liburuak, eta kanpoan argitaratutakoekin konparaketa egiten du Etxanizek liburuaren lehen zatian. Liburuaren azken kapituloetan egungo egoeraren deskribapena eta balorazioa egitearekin batera, etorkizunera begira jarri eta egiten ari dena herriaren eta kulturaren ezaugarrietara ondo egokitzen den erantzuten saiatzen da Xabier Etxaniz.

Azterketa egin eta gero, ondorio ugaritara iristen da "Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia" liburuaren egilea. Hona ondorioetako bat Xabier Etxanizen hitzetan: "Euskarazko gazte literaturaren ekoizpena mundu mailako beste batzuei egokitu zaie. Atzerakada handia

izan dugu urtetan, baina parera iritsi gara".

Ikusten denez, kontsulta modura erabiltzeko liburuak, baina baita gida modura, irizpideak ere markatzen direlako bertan. Horregatik liburuzain, irakasle edo interesa duten gurasoei gomendatzeko moduko liburuak da.

Arabako Foru Aldundiaren eskutik dator Xabier Etxanizen bigarren liburuak, katalogo formatuan eta "Euskarazko haur eta gazte literaturaren ilustrazialeak" izenburuarekin. Liburuan 24 ilustratzaile agertzen dira, bakoitzak orain arte egin duenaren berri ematen duen fitxa banarekin eta bina marrazkirekin. Beraz, aldi berean marrazkilaria bera eta bere lana ezagutzeko aukera.

Irakasle Eskolaren liburu-gida

Eskoriatzako Irakasle Eskolak "Haur txikiarentzako liburu-gida (0-7 urte)" izeneko liburuak ka-

leratu berri du. Sorta zabal-zabala eskaintzen du gida honek, orrialde gutxi batzuetan Esopo, Asun Balzola, Heine, Kitamura, edo Beatrix Potter bezalako izenak bilduz.

Eskoriatzako Irakasle Eskolako Pello Añorga eta Nerea Alzola irakasleen lan-taldeak egin du liburu-gida hau, haurrak lehen urtetik beretik jar daitezzen harremanetan liburuarekin. Gidarekin batera, irakurketa bultzatzeko gonbidapena ere egiten dute gidaren egileek: "Liburu-erosketak egin itzazu urte guztian zehar, beste jangarriekin egiten duzun bezala. Saia zaitetz baita ere, nola ez, zure gustuko haur-liburuak aukeratzeko, haur-literaturarekin haurrak bezala zuk zerorrek ere goza dezakezulako. Eta amaitzeko, adin txiki hauetan, jakin ezazu, edozein liburu (baita libururik bikainenak ere) zerorren hitzez jakin behar duzula biltzen, baldin eta haurrengana iritsi nahi baduzu".

SUMARIOA

- 1 Nobedadeak haur eta gazte-literaturan
- 2 Laburrak
Begoña Bilbao eta Karmele Esnal Agenda
- 3 Enpresak euskaraz funtzionatzeko bidean
Ariadna programa
- 4 Pertsonaiak
Lehen begiratuan



SANTISTEBAN, K. (1991). Jostailuen aitzamendua. Elkar.



24 ilustratzaileen 48 marrazki agertzen dira Xabier Etxanizen liburuan.

LABURRAK**50 liburu Klasikoak bilduman**

Klasikoak liburu-bildumaren helburuen erdia bete da dagoeneko, azken zazpi urte hauetan 50 liburu argitaratu baitira. Bere sorreran *Klasikoak S.A.* elkarteak pentsamenduaren historiako oinarritzko 100 lan argitaratzean jarri zuenez helmuga, oraindik beste 50 liburu argitaratu beharko dira. Hamar urteren buruan bilduma osatuko dela uste dute ekimenaren arduradunek.

Klasikoak S.A. elkartearen orain zazpi urte osatu zen. Elkartearen sortzaileen artean, banketxe batzuk eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateak daude. Hain zuzen ere, Pello Salaburu, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea da elkartearen lehendakaria; zuzendaria, berriz, Andoni Unzu. Liburu-bilduma jende ezagun askok osatutako batzorde zientifikoak zuzentzen du, Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzailearen koordinaziopean.

Klasikoak bildumak pentsamenduaren historian nor direnen hainbat liburu jasoko ditu, aspaldikoak zein orain gutxiakoak: Aristoteles, Descartes, Montesquieu, Sartre, Chomsky... garai gutzietako pentsalariak.

Euskara-Ingelesa / English-Basque hiztegia Egunkariarekin

Otsailaren bukaeratik Michael Morrisen Euskara-Ingelesa / English-Basque hiztegia banatzen ari da *Euskaldunon Egunkaria*. Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratu du eskuliburua, pentsatuta ingelesa ikasten dabiltzan euskaldunentzat erabilgarria izan daitekeela. Michael Morris estatubatuarren lanak 80.000 hitz eta adiera biltzen ditu 1.200 orrialdetan. Hitz zehatzen esanahiaz gain, bakoitza nola ahoskatu behar den ere azaltzen du hiztegiak; oinarri grafiko zabala du, eranskin gramatikal bat dakar, eta Ingalaterra eta EEBBetako hainbat kontzeptu kulturalen berri jakiteko bidea ere erakusten du. Hiztegiaren faszikulak larunbatero eta asteazkenero banatzen dira *Egunkariarekin* batera, 375 pezetaren truke.

**Begoña Bilbao-Karmeale Esnal**

Euskal Idazleen Elkartearen urteroko batzar orokorra egin zen Durangon pasa den otsailaren 16an. Idatzgintzarekin eta elkartearekin zeri-kusia duten hainbat gairi buruz hitz egiteaz gain, aurreko bi urteetan bezala

omenaldia ere egin zitzaion hainbat bazkideri: Jose Antonio Arana Martija, Andoni Lekuona, Txomin Peillen, Begoña Bilbao eta Karmeale Esnal. Azken bi horien berri ondorengo lerrotan.

Begoña Bilbao, 65 urteko bermeotarra da.

Irakaskuntzan urte mordo egingakoa, azken urteotan Bermeoko udaleko euskara-teknikaria izan da. 1990. urtean Irun Hiria Saria irabazi zuen *Isuritako ura ez da batzen* izenburuko ipuinarekin. Argitaratuta duen lan bakarra da hori nahiz eta beste hiru nobela idatziak izan. Euskararen aldeko lan handia egin du Begoñak; 1976an, esate batera, beste lagun batzuekin Euskal Herriko lehen euskaltegia sortu zuen, Bermeon bertan. Jaioterriko euskararen lexiko eta aditzari buruzko ikerketa sakona ere badu egina.



Karmeale Esnal donostiarra da. Bizitza osoa irakaskuntzari eskaini dio eta orain gutxi erretiratu da Santo Tomas Lizeoko bere lanetik. Idazle-lanei dagokienez, Karmealek ez du libururik idatzi, baina bai artikulua ugari; behar bada ezagunak *Zeruko Argia*

aldizkariaren *Gazte naiz* atalean argitaratu zituenak. Antzerki-munduarekin izan du loturarik, *Jarrai* antzerki-taldeko kide izateaz gain, Ramon Saizarbitoriarekin hainbat antzezlan egin zituen eta.

**AGENDA****Igartza: beka bihurtutako saria**

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean fundazioak I. Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka sortu dute idazle berrientzat. Beka hori, 1994an Udalak sortu zuen izen bereko narrazio-sariketaren ordeztolatu da. Deialdira narrazioak egiteko proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, eleberririk edo ipuin-bildumak. Bekak 500.000 pezetako dirulaguntza du. Eskuratzeko, idatzi nahi den kontakizunaren azalpena bidali beharko da ekainaren 30a baino lehen Beasaingo Euskara

Zerbitzura. Epaimahaia ira laren 5a baino lehen hartuko du erabakia.

UEMA eguna

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen festa eguna ere ate joka dator. Aurten Nafarroako Arantzan izango da, maiatzaren 24an, eta urtero legez eguna euskal giro jatorrean igarotzeko aukera bikaina izango da. Egun osoan zehar kultur, kirol eta jai giroko ekintzak, beti ere euskararen alde.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Apirilaren 20tik 27ra Abadiñon

Gero eta enpresa gehiago euskararen erabilera planetan

Hamalaura iritsi da dagoeneko euskararen erabilera planetan sartu diren enpresen kopurua. Horrelako plana egin zuen lehen enpresa Deba Garaikoa izan zen, eta ekimenak segidarik gehien bertan izan du, hamalautik zortzi bailara horretakoak direlako. Dena dela,

apurka-apurka ekimenaren oihartzuna zabaldu da eta, Deba Garaikoez ezezik beste batzuek ere heldu diote lanari, bai Gipuzkoan bertan (Goierri) eta baita Bizkaian ere. Eusko Jauriaritzak bultzatutako planen barruan sortu dira ekimen gehienak.

ALECOOP

Arrasaten. Diseinua eginda, plana hasteko.

ARLAN

Loiun. Plana garatze aldia ari da.

CAF

Beasainen. Bulego Teknikoan eta Ikerketa Sailean ari da gauzatzen plan.

ELAY

Antzuolan. Plana bukatuta. Orain egitarauak finkatzen ari dira lortutakoari eusteko.

FAGOR EDERLAN

Eskoriatzan. Diseinua eginda, plana aurtentan.

FAGOR ELEKTRATRESNAK

Arrasaten. Bideragarritasun-txostena eginda, diseinua egiteko.

FAGOR SISTEMAS

Aretxabaletan. Diseinua eginda, plana hasteko.

IKERLAN

Arrasaten. Plana bere lehenengo aldia dago.

IRIZAR

Ormaiztegin. Diseinua eginda, plana hasteko.

JMA (ALEJANDRO ALTUNA)

Arrasaten. Diseinua eginda, plana hasteko.

KUTXA

Donostian. Diseinua eginda, plana hasteko.

LABEIN

Bilbon. Diseinua eginda, plana hasteko.

MAIER

Gernikan. Diseinua eginda, plana hasteko.

MCC

Arrasaten. Planaren 2. urtean

DEIALDIA

Ariadna Programa

Liburugintzari eta itzulpen-gintzari zuzendutako dirulaguntzak banatzeko sortu zen Ariadna Programaren aurtengorako oinarriak argitaratu dira dagoeneko.

XX. mendeko literatur-lanen itzulpena, edozein arotako antzerki-lanena eta kultur-informaziorako lanen itzulpena lagundu dezake Ariadna Programak batetik. Bestetik gizartean irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenek ere lor dezakete dirulaguntza programa honen barruan.

Azkenik, literaturgintzan dabilzan profesionalen trebakuntzarako proiektuendako diru-kopuru bat ere gordetzen du.


Eskariak bidaltzeko epea maiatzaren 1ean bukatuko da. Helbidea hauex:

Europako Batzordearen

Kultur Saila, 4.22 Bulegoa.

Rue de la Loi/Wetstraat 102.

1.049 Brusela.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14

ALECOOP

ARLAN

CAF

ELAY

FAGOR EDERLAN

FAGOR ELEKTRATRESNAK

FAGOR SISTEMAS

IKERLAN

IRIZAR

JMA (ALEJANDRO ALTUNA)

KUTXA

LABEIN

MAIER

MCC

Txema Garcia-Viana


Urnietan bizi den Txema Garcia-Viana donostiarrak jaso du aurtengo Antonio Maria Labaien gazte literaturaren saria, *Triangelu Hautsia* ipuin luzeari esker. Abentura eta misterioa nahasten dira *Triangelu Hautsia* ipuinean. Bigarren karlistadan parte hartutako medikua da protagonista. Michel Le Basque izeneko pirata batek utzitako altxoraren bila doa Venezuelara, urte batzuk lehenago asmo berdinarekin abiatutako espedizio baten aztarnei jarraituz. Konturatzen da espedizio hartan hilketak gertatu zirela, eta gertatutakoa argitzen saiatzen da. Hilketen misterioa kolpetik argitzen da bidaiaren bukae-

ran, abenturaren amaieran hain zuzen.

Antonio Maria Labaien saria ez da donostiar honek eskuratzen duen lehena. Bilbon eta Urnietan ere beste batzuk irabaziak ditu lehendik. Poesia liburu bat ere argitaratu zuen, orain hamabi bat urte, Susa argitaletxean *Ihesa* izenburuarekin.

Mandatar lana du ogibide Txema Garcia-Vianak. Jaiki, furgoneta hartu eta egun osoa pakete-banaketan ematen duenez, ez du idazteko denbora larregirik. Donostiako trafikoa arazoek pentsatzeko betarik ematen ez dioten arren, bere buruari agindua jarrita dio: astan bi gau hartzea idazteko.

Triangelu Hautsia ipuinaren 60 orrialdeak ere era horretan idatzi zituen, astean bitan idatziz. Batxilerra Donostiako jesuitekin egin zuen gazte honek. Ikasketen bidean aurrera, magisteritzarekin hasi zen, baina ez zuen bukatu. Filologia ikasketei ekin eta berdin. Ikasketak utzita lanera jo zuen Txemak, euskararen irakaskuntzara AEKn. Ondorengo urratsak mandatar ogibidera eramane zuen, idazteko erraztasun handirik eskaintzen ez dion lanbidera. "... oso zail egiten zitzaidan idaztera eseritzea. Hala ere, grinak hor segitzen zuen eta erabaki nuen berriro idazten hasiko nintzela nola edo hala", aitortzen du berak.

**Iñaki Amundarain**

Juntadura eta elipsia euskaraz tesiarren aurkezpena egin du Iñaki Amundarain Arana filologoak Gasteizko EHUKo Filologia Fakultatean. *Cum laude* kalifikazioa lortu duen doktore tesiarren zuzendaria Patxi Goenaga euskaltzaina izan da, eta tesia ontzat eman zuen epaimahaiko kideak honako hauek ziren: Rudolf de Rijk, Xabier Artiagoitia, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate eta Jon Ortiz de Urbina.



Amundarainek bere lanean euskarazko juntadura-egituretako elipsiak aztertu ditu. Gai horren inguruan literaturan izan diren eztabaiden ildoari jarraituz, euskaraz aurkitutakoaren deskribapena egin du. Horretarako, baliabide informati-

koen laguntzaz, tradizioko corpus zabala aztertu du. Doktorego-tesia honetan Iñaki Amundarain zenbait ondoriotara iritsi da, esate baterako, perpaus-juntaduraren literaturan proposatu diren debekuetako zenbaiten desegokitasuna agerian utzi du. Sintagma-juntaduraren kasu-markaren elipsiaren zilegitasuna baldintza morfologikoen baitan dagoela dio, eta determinatzailearena baldintza sintaktikoen baitan.

Lehen begiratuan

Euskal Herria Multimedia *Entziklopedia* CD-ROMa, Elhuyar Kultur Elkarteak plazaratutakoa. PC eta Macintosh ordenadoreetarako balio du eta bertan 1.400 argazki, 14 bideo-zati, 64 musika-zati, 8.000 testu-lotura eta 2.000 testu-orrialde aurki daitezke. Euskal Herriaren berri ematen du geografia fisiko, geografia politiko, euskara, historia, eta kultura arloetan. Jolastuz ikasteko, gazteentzat jokoak ere baditu.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

